

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozio batekin hasteko diru kantitate bat edukitzea oso garrantzitsua da, baita honek funtzionatzeko baliabideak izatea ere, eta atal honetan hori azalduko dugu .

Gure proiektua aurrera eramateko finantzia baliabideak eskuratu beharko ditugu gure ideia martxan jartzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko. Guzti hori lortzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu gutako bakoitzak diru kantitate jakin bat jartzea, gure produktua aurrera eramatea errazago izango baita. Hasiera batean irabazi-iturri handirik izango ez dugunez, gure proiektuarekin hasteko taldekide bakoitzak 1000€ jarri beharko dituela erabaki dugu, eta horrela, 5000€ edukiko ditugu gure zerbitzuarekin kondizio onetan hasteko.

Jarraian, gure webgunea diseinatuko duenaren lana ezinbestekoa izango da, honek itxura ona edukitzeko eta bezeroen atentzioa erakartzeko; horrela, errazagoa izango da jende berriari produktua saltzea. Ez dugu pertsona bat kontratatzeke beharra izango, geuk egingo dugulako lan hau, webgunea txukun egiteko nahiko baliabide ditugula uste dugulako eta, era berean, diru pixka bat ere aurreztuko dugulako. Webgunea aurrera eramateko originaltasuna eta ezagutzak Ander Arenasek ditu.



Beste alde batetik, bezeroekin eta beste enpresekin harremanetan jartzeko beste pertsona bat beharko dugu, eta hau ere guk egingo dugu. Gure taldean, besteekin komunikatzeko eta negoziatzeko erraztasuna duelako, Ander Vega izango da harremanetako arduraduna.



Giza baliabideak garrantzitsuak izango dira proiektua aurrera eramateko. Sormena, ezagutza eta gaitasun komertziala funtzeskoak dira eta Eiderrek gaitasun hauek ditu; alde batetik, ondo daki nola erakarri jendea produktua erosteko eta komunikatzeko erraztasun handia du. Bestalde berriz, ezagutza handia du arlo horretan eta bere aportazioa hori izango da.

Ondoren, Khadijak beti dena antolatzen duenez, oso ordenatua eta arduratsua dela erakutsi digu. Gainera, gure taldean orden bat jarraitzea funtsezkoa da, inor zereginik gabe ez geratzeko eta denok antzeko garrantzia duten zereginak izateko. Beraz, bera izango da taldean koordinazio hori aportatuko duena.



Azkenik, publizitatea gai garrantzitsua da eta Salmak horretarako irudimen, originaltasun eta sormen handia du. Bestalde, diseinatzeko ere gaitasun handia du, eta hori aportatuko digu taldean, publizitateak bezeroaren atenzioa deitzeko.